

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Kontseiluak 2019ko urriaren 25ean onartu zituen 2019-2020 ikasturtean bitartean aldirako Gasteizko ikastetxeetan eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko diru-laguntzaren deialdiaren eta oinarrien laburpena

BDNS (Identif.): 480631

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean kontsulta daiteke.

Lehen. Onuradunak

Gasteizko udalerrian kokatutako ikastetxeek edo ikasleen familien elkarteek edota udalerrian kokatuta ez izanez gero, gutxienez, ikasleen ehuneko 60 udalerrian erroldatua egotea.

Bigarrena. Helburua

Gasteizko ikastetxeei edo ikasleen familien elkartei laguntza ekonomikoa ematea da diru-laguntza deialdi honen xedea; hain zuzen ere, bertan, 2019-2020 ikasturtean, eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko erraztasunak emate aldera.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Lehendakariak 2019ko urriaren 25ean onartu ditu eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 12.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Ikastetxeek eskaerak aurkeztu beharko dituzte Udal Erregistroan edo Udal Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan 2020ko uztailaren 7a baino lehen.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 25a

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren lehendakaria
ANA OREGI BASTARRIKA